

## KANALAK

Gure negozioaren oinarri nagusia bezeroak dira. Beraz ezinbestekoa izango da Urretxu-Zumarragako herritarrei gure berri ematea. Bezeroak gure informazio guztia eskuragarri izango dute hainbat eratan. Aukera bat gure lokalera etortzea izango da, bertan aurrez-aurreko komunikazioa eskeiniko diegu. Honez gain mugikorra edota izango ditugun sare sozialak gurekin harremanetan jartzeko funtsezko baliabideak izango dira. Baina kanal mota hauek mugikor edo halako gailu elektroniko batekin egingo direnez, aurrez -aurre komunikatzeko ez dugu aukerarik izango, nahiz eta erantzuna emango duena gutako bat izango den.

Gure proiektuaren berri inguruko herrietako biztanleengana irits dadin sare sozialetan kontuak sortuko ditugu bertara gure informazioa igotzeko ( Instagram, Facebook... ) .



Interneta, egia esan, guretzat garrantzitsua izango da. Hau izango da gure kanal nagusietako bat, pertsona askorekin komunikatzeko bide zuzena iruditzen zaigulako. Honetaz gain, herrian zehar kartelak ipiniko ditugu, izan ere sare sozialik ez duen nahiko jende dago. Era berean, udan kanpo ekintzaren bat egingo dugu herritarren artean gure negozioa ikustarazteko xedearekin. Sare sozialetan zein karteletan txertatu edo igoko ditugu egingo ditugun eskaintza bereziak hauek ikustarazteko. Beherapenak ikusgarri jartzeak

askotan bezeroen atentzioa bereganatzen du, beraz lagungarria izango da guretzat.

Gure bezeroen batek sare sozialak edukiko ez balitu, igoko genituzkeen berriak, argazkiak eta eskaintzak ikusteko, telefono zenbaki bat izango genuke bezeroekin kontaktuan jartzeko. Mugikor zenbaki honekin harremanetan jarriz gero, sare sozialeta igoko ditugun berri guztiak jasotzeko aukera izango duzu Whatsapp app-aren bidez. Bezeroak informazioa beste era batera jasotzea nahiago badu E - mail bidez jasotzeko aukera ere eskainiko dugu.

Sare sozial eta kartelez gain webgune bat ere izango dugu. Bertako informazioa ataletan bereiziko dugu.

- Lehenengo atala: Atal honetan guk eskainiko ditugun entrenamenduei buruz hitz egingo dugu. Baita osasunaz eta taldeak izango duen errendimenduari buruz ere.
- Bigarren atala: eskainiko ditugun zerbitzuei buruz hitz egingo dugu. Bertan sortuko ditugun taldeen berri emango zaie bezeroei; taldekakoak, bakarkakoak, entrenatzailearekin...
- Hirugarren atala: hemen izango ditugun tarifen berri emango dugu, Bertan ordutegia eta egutegia ikusgai izango dira.
- Laugarren atala: bertan saioko izango ditugun prezio/tarifa ezberdinak azalduko dira; entrenatzailearekin, tarifa desberdinak, eskaintzak...

- Bostgarren atala; Atal honetan entrenatzaileei buruz hitz egingo dugu. Bertan hauen biografia txiki bat azalduko da.
- Seigarren atala; Azken atalean gurekin kontaktuan jartzeko izan ditzakezuen baliabideei buruz hitz egingo dugu.

Gure zerbitzua jendeak ezagutzea eta ikustea nahi dugunez, lehenago aipatu dizuegun bezala, kanpo ekintzak egingo ditugu udako sasoian. Hauek gure herriko hainbat plaza edo parkeetan egingo ditugu; adibidez, Zelai Ariztiko parkean, Lizeoko futbol zelaian, Gazteluko parkea dagoen plazan...etab. Norbaitek gure zerbitzuei, prezioei edo gainerako baldintzei buruzko informazioa izan nahiko balu, inolako arazorik gabe galde diezaguke lokalera etorrira, eta guk konfiantza osoz erantzungo diogu.

Gure proiektua zerbitzu bat denez, argi dago hau kontsumitu nahi duen jendeak gimnasia bertara joan beharko duela hau kontsumitzera, hau izanik dudarik gabe gure kanal nagusia.